


ELKARTEAK

Gure marka ingurumenarekin kontzientziatutako marka bat da. Horregatik, ingurumenarekin ere kontzientziatuta dauden marka edo elkarteekin elkarlanean arituko gara.



Lehenengo, harremana hartu dugu, modan dauden hainbat arropa markekin. 3 markekin harremana izan dugu, Back to de roots, Closty brand eta Percentil. Hiru marka horiek gure helburu berak dituzten hiru marka dira, hau da, modako arropa erabat jasagarria ekoiztea eta salgai jartzea. Horregatik erabaki dugu haiekin lankidetzan aritzea, uste baitugu asko lagunduko digutela markarekin hasten eta aurrera eramaten.

Harremani dagokienez egin dugun bigarren gauza ingurumenarekin harremana duten hainbat elkarterekin harreman ona lortzea izan da. Harreman ona lortu dugu ingurugiroarekin zerikusia duten beste 3 elkarterekin. Alde batetik, Greenpeace, munduk mailako ezaguna den elkarte handi bat. Bestalde, Earth Action eta harreman ona lortu dugun azken elkarte Red da, Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea.



Harreman horiek aholkatzeari esker, gure markak laguntza ekonomikoak zein gure proiektua landu eta garatzeko laguntzak izango ditu. Horregatik erabaki dugu marka eta elkarte horiekin harremanak izatea eta lankidetzan hastea.